

Ebazpena: R101/2023

Espedientea: E041/2022

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 15a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabakitzen dute:

ERABAKIA

Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak (OFPM) Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, FAI jaunak (FAI jauna) 2021eko ekainaren 9an formulatutako kontsulta dela eta. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan ari da izapidetzen, 41/2022 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- FAI jauna pertsona fisikoa da, egoitza fiskala Basaurin dauka (Bizkaia), ezkondata dago eta ez du seme-alabarik.

2.- 2021eko ekainaren 9an, FAI jaunak kontsulta egin zion BFARI galdetzeko zer administraziorekin egin beharko lukeen PFEZaren aitortpena, aintzat harturik Bizkaian bizitzen jarraituko zuela (hori ziurtatzeko aukera izango luke, bidaien frogagiriak aurkeztuta), baina Madrilen erroldatzera zihoala, autonomia-erkidego horretako osasun-txartela lortu ahal izateko, gaitz kroniko baterako tratamendua jasotze aldera.

3.- Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak (EZKO) 2022ko azaroaren 8an jakinarazi zion erantzun-proposamena OFPMri honako kontsiderazio hauetan oinarrituta:

3.1.- Ohiko bizilekua da PFEZa ordainarazteko eskumena zehazten duen lotunea. Baterako tributazioa aukeratzen bada eta familia-unitateko kideak lurralde desberdinetan bizi badira, oinarri likidagarri handiena duen kidearen ohiko bizilekura jo beharko da.

3.2.- Ohiko bizilekua zer lurraldetan dagoen zehazteko Ekonomia Itunaren 43. artikulura jotzen da, eta aplikazio-eremu subjektiboa osatzeko, PFEZari buruzko 13/2013 Foru Araura.

3.3.- Egoitza egiaztatzeko frogabideei dagokienez, zergei buruzko 2/2005 Foru Araura jotzen da.

3.4.- Azkenik, erroldatzearen izaera ez-eratzailera jasotzen du.

4.- 2021eko abenduaren 28an, OFPMk ohar hauek bidali zizkion EZKOri (2022ko urtarrilaren 3an jaso zituen):

4.1.- Egitateen deskribapena ez dator guztiz bat zergapekoaren planteamenduarekin.

4.2.- Kontsultak jasotzen dituen gertakariak zergez haragoko ondorioak izan ditzaketenez, proposatzen da erantzunean berariaz adieraztea zerga-alderdietara mugatzen dela.

4.3.- Foru-araudia, nola orokorra hala berezia, ohiko bizilekua Bizkaian badago bakarrik aplikatu ahal izango denez, komeniko litzateke kontrako kasuan aplikatu beharreko araudi erkidea ere aipatzea.

4.4.- Erroldatzearen izaera ez-eratzailerekin bat datorren arren, proposatzen du idazkian nabarmentzea bizilekua gai faktikoa dela; beraz, hura zehazten duten egitatezko inguruabarrak aztertu beharko lirateke.

4.5.- Proposatzen du zehaztea erantzunak BFA ez ezik, Espainia ere lotzen duela, eta TLOn araututako kontsulta aipatuz.

5.- 2022ko otsailaren 25ean, EZKOk OFPMri jakinarazi zion ez zegoela ados hark egindako oharrekin, eta jatorrizko erantzun-proposamena berretsi zuen.

EZKOren ustez, ezin da akordio osorik eskatu kontsultaren testu formalean. Nahikoa da gaiaren funtsari buruzko akordioa, eta kontsulta egin zaion administrazioari berari dagokio erantzutea.

6.- 2022ko martxoaren 23an, OFPMk aurreko ia ohar guztiak berretsi zituen.

7.- Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordean (AKEB) akordiorik lortu ez zenez, 2022ko apirilaren 1ean OFPMk gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzorde honetan, eta prozedura laburtuaren bidez izapidetu da. Hori dela eta, hamar eguneko epe komuna eman zaie alderdi guztiei alegazioak aurkez ditzaten, espedientean ageri den emaitzaz.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak dauka eskumena gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua haxe ezartzen baitu Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen funtzioei dagokienez:

«Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharririk egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharririk badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administrazio ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

Hala, Ekonomia Itunaren 68.Bi artikulua honako hau xedatzen du:

«Prozedura laburtua aplikatuko da ekonomia-itun honetako 64. artikuluko b) letrako eta 47 ter artikuluko Hiru apartatuko kasuetan.

Kasu horietan, auziak izapidetzeko hilabeteko epean onartu beharko ditu Arbitraje Batzordeak, aurkezten direnetik zenbatzen hasita; hamar eguneko epe komuna emango die ukitutako alderdi guztiei alegazioak egin ditzaten, eta epe hori bukatu eta hilabetean eman beharko du ebazpena».

2.- Arbitraje Batzordearen iritzia.

Ez dago desadostasunik sakoneko gaiari emandako erantzunari dagokionez, eta bi administrazioak ados daude erroldatzea ez dela eratzaileria; beraz, «benetako» bizilekuak, gai faktikotzat hartuta, zehazten du ordainarazteko eskumena.

Administrazioen arteko bat-etortzeak nahikoak dira zergadunari erantzun bat eskaini ahal izateko, eta beharrezko den segurtasun juridikoa eman dakion 2021ean zerga-betebeharrak betetzeko.

Zehazki, Espainiako araudiaren aipamenari buruzko desadostasunek, hura aplikagarria izango balitz, ez liokete FAI jaunari eskubidea kendu behar.

Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 8. artikulua 39/2015 Legea igortzen du modu osagarrian. Lege horren 88.1 artikuluan xedatzen da ebazpenen espedientetik eratorritako gai guztiak erabakiko direla, alderdiek berariaz planteatu dituzten ala ez kontuan hartu gabe.

Kontuan hartuta Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua kontsulta bera ebazteko eskumena Arbitraje Batzordeari esleitzen diola, ez da inolako mugarik hauteman horrek esplizituki aipa ditzan foru-araudia eta Espainiako araudia. Beraz, ezin zaio aplikatu aipatzen den Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen ustezko muga.

Ondorioz, kontsultatzaileari ez zitzaion beharrezko den segurtasun juridikoa kendu behar, funtsezkoak ez diren desadostasun batzuegatik. Izan ere, estatu-edo foru-araudiaren erreferentziari dagokionez, ez du inolako zentzurik kontsulta ebazteko gaitasuna duen organoari, Arbitraje Batzordeari, ez zaiolako inolako mugarik aplikatzen, eta ezin delako berrezarri urte batzuk geroago.

3.- Epez kanpokotasuna.

BFAk alegatu du OFPMk planteatutako gatazka epez kanpokoa dela, 2022ko apirilaren 1ean aurkeztu zelako eta epea 2022ko martxoaren 28an amaitu zelako.

Organo horrek ez du beharrezkotzat jo alderdi horri buruzko iritzirik ematea, erantzunak ez zituelako eragiten legegileak zerga-kontsultari lotu nahi izan zizkion ondorioak.

Gainera, horrek ekarriko luke, lehenik eta behin, iritzia eman behar izatea Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari bidalitako gatazkaren balizko epez kanpokotasunari buruz. Batzordeak Ekonomia Itunaren 64.b artikulua ematen dituen 2 hilabeteak baino gehiago hartu zituen.

Horrez gain, 64.b artikulua bigarren paragrafoan aipatzen da gatazka planteatzeko epea oharrak egiten direnetik hasten dela kontatzen, eta hori interpreta liteke ez dela sinatzen den eguna (2021eko abenduaren 28a), baizik eta hartzaileak horiek jasotzen dituen (2022ko urtarrilaren 3a).

Azkenik, interpreta daiteke paragrafo berak egiten duela Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan adostutako irtenbide bat aukeratzearen alde, adierazten baitu hilabeteko epea izango dela gatazka planteatu «ahal izateko», eta badirudi hori ez dela nahitaez bat etortzen epe preklusibo batekin.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Prozedura artxibatutzat deklaratzeko, bestelako izapiderik egin gabe, gerora bere xedea galdu duelako, zeina baita arrazoizko epean erantzun bat eman ahal izatea, kontsultatzaileari zerga-betebeharrak betetzeko segurtasun juridikoa emateko.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari eta FAI jaunari.